

Izan ala eduki?

16. saioa

Edukitzeko bizi ala izateko bizi? Zein da nire nortasun-eredua? Nola laguntzen dut seme-alabaren nortasunaren eraketan?

Saio honetan, zera ikusarazi nahi da: gizakion nortasuna eta zoriona ez datzala edukitzean, gure izatearekin koherente izatean baizik.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Nire biziaren zein irispidetan oinarritzen dudana, nire biziaren zerk gidatzen duen... jakin (izan / eduki)
- Nire seme eta alabak hezteko zein irispide jarraituko dudana hausnartu

Haurrak:

- Garena eta daukaguna besteekin banatzeak dakarren pozaz jabetu

GARAPENA

Bananduta ekingo diote saioari haur eta helduek eta azkenean elkartuko dira guztiak, otoitzaldia egiteko, jolasteko eta meriendatzeko.

HELDUAK

Hasteko, Eduardo Meanaren abestia entzungo dugu: "Declaración de domicilio. Ondorengo estekan aurkituko duzue abestia eta materialen karpeta letra:

<https://www.youtube.com/watch?v=5FYkyCtXd6E>

Zatar-paperean, ibaia marraztuko dugu eta bi ibaiertz, eta horman ipiniko dugu. Ibaiertzetako bat izatearena izango da eta bestea edukitzearena. Taldekideei post-it bana emango diegu, beren izena idatz dezaten.

Bideoaren azkenean agertzen den galdera *–Eta zu, zein aldetan bizi zara?–* eginez ekin diezaiokegu elkarrizketari.

Hitz egiteaz batera, ibaiertz batean ala bestean jarriko dugu gure izena. Aldez alda gaitzeko, esaten dugunaren arabera... Ohikoena, denok ibaiaren "barnean" aurkitzea da eta ez guztiz alde batean edo bestean... Interesgarriena, elkarrizketa da eta batez ere, ibaiertz batean edo bestean egoteko edo batetik bestera igarotzeko ematen ditugun arrazoiak.

Idazkia landuko dute gaian sakontzeko. Delako idazki hori aurreko saioan banatuko zaie, irakurrita ekar dezaten. Hauxe da goiburua: "Izatean edo edukitzean oinarritutako bizitza?". Ondoren, beste atal bat lantzeko eskatuko diegu, hau da: Seme alabei dagokienez, zein jokaera dugu?, nola antolatzen ditugu beren bizitzak... "edukitzearen" ikuspuntutik ala "izatearen" ikuspuntutik? Galdera guzti hauei taldean erantzungo diegu. Bukatzeko astirik ez badute, bikote bakoitzak bere etxean buka dezala.

Gurasoen bileraren lehen zatiari amaiera emateko, "dantzan egingo dugu?" bideoa ikusi eta komentatu egingo dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=iv8-zVqrmwc>

HAURRAK

Pertsonak, daukaguna baino askoz gehiago garela ikusiko dugu saio honetan. Izan ere, batez ere, izan gara.

Oihaneko liburua pelikularen zati bat ikusiko dugu: "Bilatu ezinbestekoa"

https://www.youtube.com/watch?v=Tnh_kPHp9LM

Ikusi berri duguna komentatuko dugu, haurrak ohartarazteaz batera: Baloo hartzak garena daukagunaren gainetik jartzen duela. Bideoa ikusi ondoren, hainbat jarduera egingo dugu, garen guztiaz jabetzeko.

Banan-banan, ditugun gauzak aipatuko ditugu, esate baterako: margoak, ipuinak, arropak, jostailuak... Eta, horrekin batera, pertsona bezala ditugun ezaugarriak, zer garen... azalduko dugu. Nolakoak garen ere adieraziko dugu: garaia, baxuak gara, ile horia dugu edo beltzarana, alaiak, trebeak gara, hainbat gauza –besarkatu, maitatu, lagun egin, lagundu, irribarrea eragin...- egiteko gaitasuna dugu...

Haur bakoitzak, bere buruarengan nabarmendu eta konpartitu nahiko lukeen ezaugarria (maitekorra izan eta besarkadak eman; ondo marraztu eta marrazkia oparitu...) idatziko du paper batean eragilearen laguntzarekin. Papera gorde egingo dute, gurasoei eman eta etxera eraman dezaten, aurrerantzean saio hau gogoratzeko.

AZKEN UNEA DENAK BATERA

Saioaren bigarren zatian, nagusi eta txikiek, batera ezagutuko dute Lukas 9, 10-17 txatala, ogien eta arrainen ugalketari buruzkoa.

Arreta erakartze aldera –batez ere haurrena, saiorako materialen karpetan dauden Fanoren karteletako batzuk ipiniko ditugu, eragileak Bibliako pasarteak kontatzen duen bitartean.

Garena eta daukaguna besteen zerbitzura jartzen dugunean... denontzako daukagu, zorientsuago gara eta bizia zabaltzen dugu gure inguruan.

Nagusi eta txikiek testua komentatuko dute. Ondoren, hurrek aurretik zer egingo duten eta paperetan zer idatzi duten azalduko dute. Paper horiek gelaren erdian jarritako saskian (ogiak eta arrainak marraztuta izan ditzake) utziko dituzte.

Amaitzeko, otoitz eta jolas egingo dugu elkarrekin eta bakoitzak dena eta duena jarriko duen merienda konpartituko dugu.

Otoitz hau esango dugu esaldiz esaldi, hurrek errepika dezaten...

Irakatsi, Aita, bereizten:

Beharrezkoaren eta beharrezkoa ez denaren artean.

Lagundu, Aita, nire buruarengan, nire bikotekidearengan, nire gurasoengan, nire seme-alabengan... dagoen baliotsu guztia antzematen.

Lagundu, Aita, edukitze-egarria baztertu eta gure izatearen altxorra lehenesten.

Eman indarra, geure alderdirik onena besteen zerbitzura jar dezagun.

Garen eta daukagun guztia pozez bizi dezagula.

[...eman denbora apur bat bakoitzak bere otoitza egin dezan...]

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Amen

Topaketaren oroigarri bezala, otoitza eta Fanoren irudi bat duen txartel plastifikatua banatu, gurasoek hurren aurrean otoitz egin dezaten etxean.